

Erref.- AIP / Goi-mailako teknikaria

GERENTE ANDREAREN 2018KO EKAINAREN 21EKO EBAZPENA; BERAREN BIDEZ ALDI BATERAKO LAN-POLTSEN 2018KO ZONIFIKATZE-PROZESUAREN BEHIN-BEHINEKO ZERRENDAK ONESTEN DIRA.

Gerente andrea:

GUFEn Gobernu Batzordeak, 2018ko apirilaren 13an egindako bilera arruntean, besteak beste, aldi baterako laneko poltsak kudeatzeko irizpideak onetsi zituen, zonifikazio berriaren eranskinarekin batera. Testu osoa Bizkaiko Aldizkari Ofizialean (BAO, 76. zk., 2018ko apirilaren 20koa; eta okerren zuzenketa BAOren 85. zenbakian, 2018ko maiatzaren 4an) eta GUFEn iragarki-oholean eta web-orrian argitaratu zen.

Erabaki horren bidez, ahalmena eman zitzaion GUFeko gerenteari testu horretan ezarritakoa gauzatzeko, eta, ondorioz, orain, besteak beste, aldi baterako laneko poltsak kategorien arabera aukeratu beharra xedatu zuen, dokumentuan ezarritako epean eta moduan.

Horrela, Gerentziaren aurtengo maiatzaren 7ko ebazpen baten bidez epe bat zabaltzea xedatu zen, zertarako eta aukera-eskubidea egikaritzeko GUFEn aldi baterako lan-poltsak osatzearen eretzear.

Behin epe hori amaituta, kategoria guztietatik atera diren behin-behineko zerrendak onetsi dira, betiere haietatik bakoitzari dagozkion lan-poltsak eratzeko.

Gai honen eskumena GUFEn gerente andreaki dagokio gaikuntzan bertan eta maiatzaren 30eko 4/2001 Foru Arauaren 9. artikuluan xedatutakoaren arabera. Izan ere, foru-arau horrek institutu hori eraentzen duten estatutuak aldatu zituen.

Beraz, hau sinatzen duenak honako ebazpen-proposamen hau aurkezten dizu, aztertu eta onar dezazun:

EBAZPENA

Lehenengoa.- Deialdi honetan onartutakoen eta baztertutakoen behin-behineko zerrendak onestea; ebazpen honen eranskin gisa doaz zerrendak.

Bigarrena.- Eranskin horretan dauden pertsonen hamar egun naturaleko epea ematea, ekainaren 25etik uztailaren 4ra, euren detektatzen dituzten okerrak zuzen ditzaten (halakorik egonez gero). Epe hori oker materialak zuzentzeko baino ez da, eta ezin da ezein aldaketarik egin zonifikazioari buruz daborduko eginda dauden aukerei buruz.



Detektatzen diren okerrak justifikatzeko dokumentazioa foru-institutu honen erregistro orokorrean aurkeztu beharko da.

Hirugarrena.- Baldin eta erreklamaziorik aurkezten ez bada behin-behineko zerrenden aurka, orduan zerrendok automatikoki bihurtuko dira behin betiko, ondorik beste argitalpenik egin behar izan barik.

Laugarrena.- Xedatzea zerrenda horiek (eranskinean daudenak) GUFEn iragarki-oholean eta web orrialdean argitara daitezela.

Bilbon, 2018ko ekainaren 21ean.

KUDEAKETA ADMINISTRATIBOAREN ARLOKO BURUA

Sin.: Rosa García García

GUFE-KO GERENTEA

Sin.: Teresa Alba Zubizarreta